



EKAIN FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación Ekain Fundazioa

IFK

G20854428

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2004ko azaroaren 22an eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen ["Fundación Ekain Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2005eko irailaren 5eko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8552 Kultura-hezkuntza.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren xedea ondare historikoa aztertzea, hedatzea eta ezagutzea da, eta, zehazkiago, Ekainen erreplika ("Ekain Berri") eta Zestoako historiaurreari buruzko museoa zuzentzea, kudeatzea, mantentzea eta sustatzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Fundazio-zuzkidura

18.000 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 33,33
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 33,33
Zestoa Udala	% 33,33



Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontrolako eskumen guztiak. Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Ikerne Badiola Garciandia andrea	Presidentea. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi andrea	Idazkaria. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Cristina Uriarte Toledo andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Imanol Agote Alberro jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Rubén Alberdi Uranga jauna	Presidenteordea. Zestoako Udala.

2013ko ekitaldiko urteko kontuak

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	8.876.381 €
Ondare garbia	8.840.283 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

Udaletxea, Foru Plaza, z./g. - 20740 Zestoa (Gipuzkoa).

Webgunea

www.ekainberri.com